

## V - BESTELAKOAK

### FUNDACIÓN KIROLARABA FUNDAZIOA

#### Goi mailako klubentzako laguntza deialdiaren ebazpena

Kirolaraba Fundazioaren Patronatuko lehendakariaren 2020ko otsailaren 2ko 02/2020 zk. Xedapenaren bidez onetsi zen goi mailako klubentzako laguntza deialdia eta haren berariazko oinarriak.

Oinarri horiek ALHAOren 26. zenbakian argitaratu ziren, 2020ko martxoaren 4an.

Kirolaraba Fundazioaren Patronatuko lehendakariaren 2020ko uztailaren 21eko 7/2020 xedapenaren bidez (ALHAOn argitaratu zen 2020ko abuztuaren 3an, 87. zenbakian), 02/2020 Ebazpena aldatzea erabaki zen, besteak beste:

- Deialdiaren zenbateko osoa aldatzea: 212.000 euro-tik 242.000 euro-ra.
- Erakunde eskatzaileei eman beharreko aurrerakinaren ehunekoa aldatzea: ehuneko70etik ehuneko 60ra.

Deialdi horri helduz, hainbat kirol entitatek aurkeztu dute dirulaguntza eskaera.

Balioespen Batzordeak egindako akta aztertu da.

Horren ondorioz, dagozkidan eskumenez baliatuz,

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Xedapen honen eranskinean ageri diren laguntzak ematea eranskin horietan zerrendatutako erakundeei bertan jasotzen diren jarduerengatik. Guztira 241.996,94 euro banatu dira.

Bigarrena. Zenbateko hori bi epetan ordainduko da, bata justifikatu beharreko aurrerakin bezala, laguntzaren ehuneko 60ari dagokion zenbatekoan, ebazpen hau eman ondoren, eta bestea, onartutako gainerako zenbaterainoko, behin oinarrietatik bederatzigarrenean jasoriko agiriak aurkeztu ondoren. Ez da eskatzen dirulaguntzaren erakunde onuradunek bermerik jartzeko, diruz lagundutako erakundeen nortasuna dela-eta berme osoa ematen baitute, eta kontuan izanik, gainera, aurretik izandako lankidetzak erabat gogobetekoak izan direla.

Hirugarrena. Dirulaguntzen onuradun diren erakundeek emandako dirulaguntzaren justifikazioa aurkeztu behar dute 2020ko irailaren 30erako.

Justifikazioa egiteko, erakunde onuradunek urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako

Lurralde Historikoko dirulaguntzenak, 28.1 eta 2 artikuluetan eta Diputatuen Kontseiluaren urriaren 6ko 55/2015 Foru Dekretuak, Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren lehia bidezko dirulaguntzen oinarri arautzaileak onartzen dituenak, 10. artikuluan araututako justifikazio kontu erraztua aurkeztuko dute, eta nahitaez bete beharko dute II. eranskina.

Honela osatuko da justifikazio kontu erraztua:

1. Jardueren memoria bat, dirulaguntza ematerakoan ezarritako baldintzak bete direla justifikatzen duena, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak azaltzen dituena.

2. Jardueraren gastuen zerrenda sailkatua, hau da, jardueraren aurrekontu osoa; zerrendan jarri beharko dira hartzekoduna, gastuen agiria edo faktura, zenbatekoa, jaulkipen data eta, hala badagokio, ordainketaren data.

3. Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten bestelako diru sarrera eta dirulaguntzen xehetasunak, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

4. Hala badagokio, itzulketaren ordainketa gutuna, aplikatu ez diren soberakinen kasuan; bai eta haietatik eratorritako interesena ere.

5. Justifikazio kontu erraztu horren araudian xedatzen den laginketarako, eta dirulaguntza behar bezala aplikatu dela egiaztatzeko, hauexek aurkeztu behar dira: seigarren oinarri arauan xedaturiko gastu konputagarrien justifikazioa zerrenda batean behar bezala jaso, seigarren oinarri arau horretan xedaturiko zenbatekoetan gehienez ere; horretarako, gastua justifikatzen duten jatorrizko fakturak aurkeztu beharko dira. Aitzitik, 500,00 euro baino gehiagoko fakturak aurkeztuz gero, ordaindu egin direla egiaztatu beharko da.

Organo izapidegileak egokitzen dituen agiri, argibide, egiaztagiria eta faktura guztiak eskatu ahal izango dizkie erakunde onuradunei, dirulaguntza behar bezala erabili dela egiaztatu ahal izateko.

Gastuak justifikatzeko ez dira onartuko, besteak beste, ondoko datuak argi eta garbi azaltzen ez dituzten ordainagiria edota fakturak:

- Jaulkitzailea, bere izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.
- Hartzailea, bere izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.
- Gastuaren xedea.
- Data.
- Faktura zenbakia.

Ez da onartuko eskudirutan ordaintzea 2020rako indarreko araudian ezarriko den zenbatekoa edo hortik gorakoa (edo horren kontrabalia atzerriko monetetan).

Adierazitako zenbateko hori kalkulatzeko, eta ondasunak entregatzea edo zerbitzuak ematea zatika egin bada, zati guzti horien zenbatekoak batuko dira.

Fakturak ordaindu direla frogatzeko, agiri hauek onartuko dira:

– Bankuko jatorrizko ziurtagiria; bertan agertuko dira, gutxienez, zenbatekoa, data eta ordainketaren edo transferentziaren onuraduna. Ziurtagiri hori izenpetuta aurkeztuko da, eta/edo bankuaren zigilua duela.

– Jatorrizko fakturaren jaulkitzaileak sinatutako eta/edo zigilatutako ziurtagiria; bertan agertuko dira faktura zenbakia, zenbatekoa eta ordainketa data.

– Posta arruntez jasotako banku laburpenak, jatorrizkoak.

– Kontu korronteen libreten kopia konpultsatua, mugimenduak ageri dituenak.

– Posta elektronikoaren bidez jasotako banku laburpenak edo transferentzia agindu telematikoak, ordainketa edo transferentzia egin duen bankuaren zigiluarekin.

– Jatorrizko erosketak, zenbatekoa ordaindu dela egiaztatzen dutenak (merkataritza gune eta autobideetakoak, bidaiak txartelak eta abar), edo jatorrizko fakturak, enpresa emailak ordainduta daudela adierazteko jarritako zigiluarekin.

– 110 ereduak bankuaren zigiluarekin edo 110 ereduak eta banku ziurtagiria.

– Barne langileen gastuak honako agiri hauen bidez justifikatuko dira:

– Jatorrizko nominak, langileak izenpetuak, non izenpearen bidez langileak soldata jaso duela adierazten baita.

– Langileak izenpetutako jatorrizko idazkia, non agertuko baita langileak kobratu egin duela eta kobratutakoa zein hiletakoa den.

– Langileen 10-T agiriak, jatorrizkoak.

– Nominen ordainketa multzokatuaren jatorrizko banku laburpena eta horrekin batera, enpresa/erakunde onuradunaren ziurtagiria, langileen nominak transferentzia horren kontra ordaindu direla zehazten duena eta langile bakoitzari aurkeztutako hilabete bakoitzeko zein kopuru dagokion adierazten duena.

– TC1. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren aplikazioaren bidez (RED sistema) sortutako agiria, aztarna digitala duena, edo horren kopia (konpultsatu gabekoa bada ere), edo Gizarte Segurantzaren bulegoetan aurkeztutako jatorrizko dokumentua, finantza erakunde batek zigitatua, edo, hala behar denean, kotizazioen ordainketaren banku laburpena.

– TC2. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren aplikazioaren bidez (RED sistema) sortutako agiria, aztarna digitala duena, edo horren kopia (konpultsatu gabea bada ere), edo Gizarte Segurantzaren bulegoetan aurkeztutako jatorrizko dokumentua.

PFEZaren gainean egindako atxikipenak gastu lagungarritzat jotzeko, aurkeztutako hiruhileko 110 ereduak, PFEZaren gaineko Atxikipenak eta Sarrerak, horiek ordaindu direla egiaztatzea.

BEZaren kuota jasanak diruz lagundu daitekeen gastutzat jotzeko, Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren edo zerga egoitzaren kokalekuko zerga administrazioaren ebazpena aurkeztu beharko da. Ebazpen horrek onartu egin behar du erakundearen izaera soziala, halaxe jasotzen baitu BEZaren Foru Arauaren 20. Hiru artikulua, zerga ordaindu behar izatetik salbuesteko, BEZaren Foru Arauaren 20. Bat artikulua 13. paragrafoak jasotzen duen bezala.

Fundazioan, aurkeztutako jatorrizko froga-agiriei zigilu marka jarriko zaie, eta bertan justifikatutako eta eskatutako dirulaguntza agertu beharko da, baita egiaztagiria zenbatekoa dirulaguntzari osorik edo zati batez egozten zaion ere. Azken kasu horretan, dirulaguntzari dagokion zatiaren zenbateko zehatza ere adieraziko da.

Laugarrena. Jarduera egin eta gero aurkeztutako datuetan edozein aldaketa eginez gero, horrek eskabidean adierazi ziren eta dirulaguntza kalkulatzeko oinarri moduan erabili ziren datuetan aldakuntzarik sortzen badu, hura berriro kalkulatu beharko da, Deialdiaren zazpigarren oinarrian jasotzen diren irizpideen arabera, eta ezin izango da, inola ere, Xedapenaren honetan bideratutakoa baino handiagoa izan.

Bosgarrena. Kirol erakunde onuradunak Kirolaraba Fundazioaren patrosinua aipatu beharko du (alegia, lehengo Álava Vive Deporte-ALVIDE Fundazioarena), bai eta Arabako Foru Aldundiaren lankidetzaren ere, diruz lagundutako programarekin zerikusia duten agiri eta jarduera guztietan.

Seigarrena. Erakunde onuradunek beren gain hartuko dituzte ekintzaren ondorioz etor daitezkeen mota guztietako erantzukizunak, baita ekintza hori egiteko indarrean dagoen legeriak eskatzen dituen baimenak eskatzeko obligazioa ere.

Zazpigarrena. II. eranskinean zerrendatutako erakundeari eskaera ez onartzea bertan adierazitako arrazoirengatik.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko irailaren 9a

*Kirolaraba Fundazioaren Patronatuko presidentea*  
**ANA M. DEL VAL SANCHO**

*Patroia*  
**PABLO DE ORAÁ OLEAGA**

## GOI MAILAKO KLUBENTZAKO LAGUNTZAK

2020

## I. ERANSKINA

## EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

zk.	Erakunde eskatzailea	IFZ	Dirulaguntza
1	Club Deportivo Ariznavarra	G-01051754	7.514,07 €
2	Club San Ignacio	G-01053297	16.906,64 €
3	Club de Tiro Olimpico Emilio Alava	G-01154723	1.878,52 €
4	Club Deportivo Gimnasia Beti-Rítmica	G-01439116	8.453,32 €
5	Club Deportivo Beti-Aurrera	G-01204338	18.785,16 €
6	Club Natacion Menditxo	G-01061787	6.000,00 €
7	Lautada Urpolo Gasteiz Igeriketa Kirol Elkarte (F)	G-01458645	5.635,55 €
8	Lautada Urpolo Gasteiz Igeriketa Kirol Elkarte (M)	G-01458645	6.574,81 €
9	Sumendi C.D. Patinaje de Vitoria-Gasteiz	G-01336833	3.757,04 €
10	Club de Lucha Aranako	G-01157239	939,26 €
11	Aritza Club (F)	G-01112473	3.757,04 €
12	Aritza Club (M)	G-01112473	3.757,04 €
13	Agrupación deportiva Tenis Mesa Gasteiz	G-01211317	1.878,52 €
14	Club deportivo Zuzenak	G-01120518	2.817,78 €
15	C.D.U. Lankide S.E. (F)	G-01462076	3.757,04 €
16	C.D.U. Lankide S.E. (M)	G-01462076	3.757,04 €
17	Club de Ajedrez Aranbizkarra (F)	G-01297571	2.817,78 €
18	Club de Ajedrez Aranbizkarra (M)	G-01297571	1.878,52 €
19	Club deportivo Ignium (F)	G-01578145	3.757,04 €
20	Club deportivo Ignium (M)	G-01578145	939,26 €
21	Aerobic-Biribildu C.D. Gimnasia Gasteiz	G-01349026	7.514,07 €
22	Ikaslehi Amurrial Txirindulari Kirol Kluba Amurrio	G-01551860	5.635,55 €
23	A. D. de Fútbol - 5 Batzarre	G-01259605	2.817,78 €
24	Asoc. Araski Arabako Emakumeen Saskibaloia	G-01484237	2.817,78 €
25	Club de Gimnasia Arabatxo (F)	G-01113174	3.757,04 €
26	Club de Gimnasia Arabatxo (M)	G-01113174	3.757,04 €
27	Club de Gimnasia Arabatxo (Parkour)	G-01113174	1.878,52 €
28	Club deportivo de Halterofilia Indarra Caja Vital	G-01358308	939,26 €
29	S.D. Balomnano Gure Auzune	G-01122258	2.817,78 €
30	Club deportivo Tiro al plato Araba Trap	G-01583277	2.817,78 €
31	Club La Blanca	G-01146885	5.635,55 €
32	Grupo Deportivo Arabarrak	G-01037076	3.757,04 €
34	Club Deportivo Pelotazale de Gasteiz Errekaleor (F)	G-01275288	939,26 €
35	Club Deportivo Pelotazale de Gasteiz Errekaleor (M)	G-01275288	939,26 €
36	Jatorria Boleibol Kirol Kluba	G-01568526	2.817,78 €
37	Gaztedi Rugby Taldea (F)	G-01045384	3.757,04 €
38	Gaztedi Rugby Taldea (M)	G-01045384	3.757,04 €
39	Aiarabike Audio Txirindularitza Kirol Kluba	G-01542604	13.149,61 €
40	Club Oskitxo	G-01050343	12.210,35 €
41	Club Gimnasia Rítmica Vitoria Supra	G-01481597	11.271,10 €
42	Club Gimnasia Ceted Vitoria	G-01553072	9.392,58 €
43	Club Natación Judizmendi	G-01053909	2.500,00 €
44	Club Balonmano femenino Eharialde	G-01180330	2.817,78 €
45	Elurra Kultur eta Kirol Elkarte	G-20120374	5.635,55 €
46	Elurra Kultur eta Kirol Elkarte	G-20120374	1.878,52 €
47	Harrikada Neguko Kirol Kluba (F)	G-01512805	1.878,52 €
48	Harrikada Neguko Kirol Kluba (M)	G-01512805	1.878,52 €
49	Harrikada Neguko Kirol Kluba (MX)	G-01512805	939,26 €
50	Ganbegi 6-2 Hockey Taldea	G-01218460	2.817,78 €
51	Club deportivo Aurrera de Vitoria. Fútbol (F)	G-01035419	6.574,81 €
52	Club deportivo Aurrera de Vitoria. Fútbol (M)	G-01035419	3.757,04 €
53	Club deportivo Aurrera de Vitoria. Hockey (F)	G-01035419	1.500,00 €
54	Club deportivo Aurrera de Vitoria. Hockey (M)	G-01035419	1.878,52 €
			241.996,94 €

**GOI MAILAKO KLUBENTZAKO LAGUNTZAK****2020****II. ERANSKINA****UKATUTAKO ESKAERAK**

zk	Erakunde eskatzailea	IFZ	Ukatzeko arrazoia
33	Urgatzi Kirol Club	G-01460179	Ez du parte hartzen autonomikoa baino maila handiagoko lehiaketan. Bigarren oinarriaren arabera, 1.1. d2 atala.